

Mikel Laboa Katedra eta Bertsozale Elkartearen deialdia (2023)

bertsolaritzari buruzko

Gradu Amaierako Lanen Saria (GrAL)

DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen bidez bertsolaritzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzeko dute helburu Bertsozale Elkarteak eta Mikel Laboa Katedrak.

Ikertzaile gazte edo hasiberriaren urratsak garrantzizkoak dira; hori aitortzea, eta unibertsitateko edozein jakintza-alorretik abiatuta, bertsolaritza ikergai gisa aukeratu izana baloratzea da deialdi honen helburua. Lehenengo urratsen garrantziaz jabeturik, hain justu, deialdi honetan Gradu Amaierako Lanen kalitatea ebaluatu eta sarituko da.

PROZEDURA

- Bertsolaritza ikergai duen Gradu Amaierako Lan (GrAL) bat edo Goi Mailako Antzerki zein Musika (Musikene, Dantzerti eta pareko) Ikasketa bukaerako lan bat da sarituko dena.
- EAE, Nafarroa Garaia edo Pirinio Atlantikoko Departamenduko Goi Mailako Ikastegi zein Unibertsitateetako gradu ofizialetako ikasleek (edo ikasle ohiek) aurkeztu dezakete GrALa edo ikasketa bukaerako lana.
- Deialdira aurkeztu daitezkeen lanak 2020-21, 2021-22 edo 2022-23 ikasturteetan defendatukoak dira.
- Aditu edo doktozez osaturiko hautaketa-batzordeak baloratuko ditu lanak. Baremoak zehaztu ondoren, batzordeak puntu gehien duenetik gutxienekora doan zerrenda egingo du. Horietan puntu gehien lortu dituenak irabaziko du saria. Sariari uko egiterik edo bestelako arazorik balego, saria merezi duten izenen zerrendan hurrengoa denak jasoko luke saria.
- 2023an 600 euroko sari bat esleituko da.

- Saria eman gabe gera daiteke, lanik ez delako aurkeztu edota aurkeztu direnek saririk merezi ez dutela erabakitzen bada.
- Irabazlearen izena 2023ko urriaren 18an jakinaraziko da beranduenez.
- Mikel Laboa Katedrak zein Bertsozale Elkartek deialdira aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea edukiko dute, idazlanaren pasarte bat izan edo idazlan osoa izan.
- Deialdira aurkeztutako lanak Xenpelar Dokumentazio Zentroan artxibatuko dira, eta argitaratu bitartean lan bakoitzaren egilearen baimena beharko da kontsultatu ahal izateko.
- Deialdira GrAL edo Goi Mailako ikasketa bukaerako lan bat aurkeztea aski da, lanaren egileak deialdiaren prozedurari dagozkion puntu guztiak onartzen dituela baieztatzeko.

ESKAERAK

- Lanak (PDFan) eta eskaera orriak **Bertsozale Elkarteko Ikerkuntza eragileari** (ikerkuntza@bertsozale.eus) eta **Mikel Laboa Katedrako Zuzendariari** (mikel-laboa.katedra@ehu.eus) bidaliko zaizkie.
- Lanak eskaera orriarekin batera aurkezteko epea: **2023ko irailaren 18a arte**.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Lanak honako irizpide hauei jarraituz ebaluatuko dira:
 - GrALaren kalitatea: ikerketa-gaia eta helburuak ondo zehaztuta egotea. Metodologia egokia izatea eta ondo garatuta egotea. Lana argi eta ondo idatzita eta egituratuta egotea.
 - GrALaren garrantzia eta originaltasuna: lanak jakintzari egindako ekarpena, maila teorikoan zein metodologikoan egindako berrikuntzak. Ikuspegi interesgarria eskaintzea eta etorkizunerako lan ildoak irudikatzea.
 - Euskarazko lanak lehenetsiko dira.



INFORMAZIOA

- Bertsozale Elkartearen atarian (www.bertsozale.eus), argitaratuko da deialdiari buruzko informazioa eta deialdiaren urratsen berri.
- Deialdiaren inguruko gorabehereri buruzko galderak honako helbide elektroniko honetara bidaliko dira: ikerkuntza@bertsozale.eus edo mikel-laboa.katedra@ehu.eus era.